

NAZIO KOMITERAKO EGITASMO BERRIA



Aurkezpena

Nazio Komitearen osaketa berria erabakitzea da Biltzar Nagusiaren erabaki nagusia zuzendaritzari dagokionez. Oraingoan ez du aurreko biltzarrean bezain beste zentralidade hartuko aldaketa gutxi izango ditugulako, baina horrek ezin dio garrantzirik kendu hartuko dugun erabakiari. Are gehiago, osaketan eztabaida gutxi egingo dugunez, kongresuaren testuingurua baliatu behar dugu zuzendaritzari buruzko gogoeta egiteko eta aurrera begirako erabaki berriak hartzeko.

Behin eta berriro ateratzen zaizkigu hainbat eztabaida nazio komitearen funtzionamenduaz hitz egiten dugunean, askotan izaten dira mintzagai baina ez dugu erabaki sendorik hartu gaur arte. Eman ditugu urrats batzuk (idazkaritza sortzea batez ere, exekutiboaren eta nazio komitearen arteko lotura indartuz eta barne mailan informazioa modu askoz txukunago batean kudeatuz) baina gehiago emateko aukerak ditugu.

Zuzendaritzaren funtzionamendua berritzea egitasmo oso bat izan behar du, ez gaurko funtzionamendua goitik behera aldatu nahi dugulako, gauzak hobetzeko funtzionamendua bere osotasunean aztertu behar dugulako baizik. Era berean, berria egitasmoa izango da, ez horrela proposatzen ditugun urratsak, asko eta asko erabakiak ditugulako jada. Esan bezala, berria da erabaki eta gogoeta guztiak norabide eta helburu jakin bat izango duten egitasmo batean barne biltzea eta modu konpartitu eta antolatu batean garatzea.

Nazio Komitearen funtzionamendua berritzeko arrazoiak

Nazio Komitearentzat egitasmo bat edukitzeko helburu nagusia atzetik arrastaka ditugun hainbat funtzionamendu arazo konpontzea eta Biltzar Nagusian finkatuko dugun estrategiak eskatzen dituen behar berriei erantzuteko gai izatea da. Arrazoiak asko dira, batzuek oraingo funtzionamenduaren balorazioetatik ateratzen dira, beste batzuk kongresuan hartuko ditugun erabakietan oinarritzen dira. Hauek dira arrazoi nagusiak:

- Estrategiari buruzko eztabaidek tarte handiagoa hartu behar dute Nazio Komitearen bilkuretan. Oso gutxitan lortzen dugu nazio komitearen eztabaida eguneroko zurrunbiloaren gainetik jartzea (agendan zentratzen delako) eta ondorioak bistakoak dira, hainbat lerro eta egitasmo sindikatuarentzat estrategikoak bilakatu ditugu zuzendaritzan apenas eztabaidatu gabe eta nazio komitearen funtzionamenduak ez du bertako kideon ikuspegi estrategikoak elikatzeke gehiegi lagundu. Eztabaidak sakonean egiteko ditugun zailtasunak askotan aipatu ditugu baina ez ditugu neurriak jartzen, ez dago zailtasunak gainditzeko joera markatu bat (nazio komiteko kideek nekez hartu dezakete tarte bat eztabaidak prestatzeko, lanketa eta eztabaida berdinarekin erabakitzen dugun mobilizazio bat egitea edo negoziazio kolektiboan inizatiba estrategiko bat hartzea...)
- Eredu sindikalaren inguruko gogoeta eta eztabaidek ez dute apenas presentziarik izan nazio komitearen eztabaidetan eta gaurko egoeran behar beharrezkoak dira. Ponentzian esan dugu eta guztion buruan dago bizi ditugun aldaketek gure eredu sindikalerako funtsezkoak diren erabaki berriak hartzea eraman behar gaituela (ekintza sindikal eredu, aktibazio eta mobilizazio eredu, borroka bide eta tresna berriak...). arlo honetan erabakiak hartzeko eztabaida asko eta sakona egin behar da eta sindikatuaren zuzendaritza izan behar da horretarako gune nagusia.
- Bizi dugun faseak eta finkatu dugun estrategiak hainbat behar berri sortzen dizkigu. Edo hobe esanda, lehen ere bazeuden behar batzuei garrantzi eta dimentsio berri ematera behartzen gaitu. Hauen artean azterketek eta ikerketek izan behar duten garrantzia azpimarratu dezakegu. Azterketek Estatu Erreforma baten erdian gaudelako batez ere, goitik behera aldatzen ari dira gure lan eta borroka eremua eta guztiak sakonean aztertu behar ditugu gure estrategia eta interbentzioa behar bezala finkatu ahal izateko. Ikerketek nazio eraikuntza estrategia bat finkatu dugulako eta horrek alternatibaren bidea jorratzeko dauden aukerak, baliabideak, bitartekoak... ikertzera behartzen gaituelako.

- Egoera politikoari buruzko azterketak eta gogoetak ere leku eta tarte handia galdu dute gure bileretan. Guztiz logikoa da sindikatua krisiaren kontrako borrokan zentratua dagoelako eta hori gure barne funtzionamendu osoan nabaritzen delako, baina hutsune bat dela onartu behar dugu egoera politikoaren bilakaeran eta Herri bezala dugun borroka politikoan dagoelako gure estrategia aurrera ateratzeko giltza nagusietako bat.

Zuzendaritzaren azken lau urteen balorazioa oso positiboa da, ez dago zalantzarik eta horrela adierazi behar dugu. Baina hobetzeko aukerak badaude eta horretara jo behar dugu.

Kongresuan finkatuko dugun estrategia izan behar da horretarako hizpidea eta gure ustez lau ardatzen gainean urratsak eman ahal izatea da helburu nagusia: sindikatuaren inizatiba gaitasuna handitzea, eragile soziopolitiko izaera indartzea, eskualdeez eskualde estrategia propioa eta sendoak artikulatzeko gure burua trebatzea eta antolakuntza-hedapen arloan ziklo berri bat irekiko duen zuzendaritza izatea.

Helburu hauen mesedetan urratsak emateko bilkurak hobetu behar ditugu, baina ez da hori guztia. Zuzendaritza beraren funtzionamendu osoa helburu hauei begira jartzea da gakoa, bai norbanakoen lanari dagokionez, baita zuzendaritza bitartekoei dagokionez ere (batzordeak, idazkaritzak...)

Nazio Komitearen zuzendaritza lana antolatzeari dagokionez.

Zuzendaritza antolatua dugu eta ongi definituak ditugu zeintzuk diren gure bitarteko nagusiak gure lana betetzeko. Baina zuzendaritza osatzen duten egiturak ongi antolatu eta uztartu behar ditugu zuzendaritza ez delako bakarrik egitura edo gune multzo bat. Zentzu horretan, hainbat urrats eman behar ditugu:

- Batzorde sozioekonomikoa martxan jarri da eta oso urrats garrantzitsua da estrategiari buruzko eztabaida zuzendaritzan indartzeko izango dugun bitarteko nagusia delako. Baina ez hori bakarrik, idazkaritzek bere funtzioa betetzea ahalbideratuko duen gune nagusia da eta sindikatuaren agenda osatzerakoan exekutiboak ikuspegi osoa edukitzeko aukerak emango ditu. Baina batzordearen dinamika eta exekutibo-nazio komitearen-federazio komiteen dinamika elkarlotu behar ditugu eta batzordeak eskualdeetako estrategiak elikatze eta dinamizatzeko garaian jokatu duen paperean asmatu behar dugu.
- Ekintza sindikaleko batzordeak dimentsio eta garrantzi handia hartuko du datozen urteetan bistakoak diren arrazoiengatik. Gure bitarteko nagusia da negoziazio kolektiboko estrategia osoa berritzeko, ekintza sindikalerako ereduak sakontzeko. Aurreko batzordearekin bezala, batzordearen eta exekutibo-nazio komitearen arteko lotura egiten asmatu behar dugu arrastaka daramagun arazoa delako nazio komitean ekintza sindikalari leku handiagoa ematen asmatzea edota exekutiboan batzordearen eta federazioen puntua hobe ezaugarritzea.
- Aholkularitza juridikoari dimentsio berria eman behar diogu aurretik aipatu dugun azterketa eta ikerketa beharri begiratuz. Aldaketa legislatibo handiak ematen ari dira eta horien azterketak jaten du idazkaritza honen lana momentu honetan. Behar beharrezkoa da. Baina eraikuntza ikuspegiari begiratuz, ikerketak ere bere lekua izan beharko luke eztabaida handia eman beharko dugulako gure eskakizunetan aurrera egiteko bideen inguruan.
- Aholkularitza ekonomikoari dagokionez, emango dugun urratsak azterketa lanen antolaketa eta kudeaketa azterketa lanaren arabera antolatzeko aukerak eman behar dizkigu. Orain arte exekutiboaren eta eguneroko agendaren arabera antolatu nahian ibili gara eta bi gauzek ritmo ezberdinak eduki arren.
- Antolakuntza eremu guztiari dagokionez, kongresuan helburu anbizioak jartzen dizkiogu gure buruari. Baina are gehiago, egoerak behartu egiten gaitu eremu honi gaur arte zuzendaritzan eman diogun baina leku askoz ere gehiago ematera. Esan dugunez, egituraketari buruzko eztabaida amaitutzat ematen dugu modu dinamiko batean hobetuko

badugu ere. Baina eztabaida asko ditugu egiteke hedapen fase berri bat irekiko badugu eta batez ere, sindikalgintzaren kontrako eraso bortitz eta orokorrari estrategia organizatibo integral batekin erantzungo badiogu.

- Bukatzeko baina ez azken gauza bezala, zuzendaritza bere osotasunean hobetzeko ezinbestekoa dugu gure lana bideratzeko eta sindikatuaren interbentzio guztia ongi dinamizatzeko eta zuzentzeko klabeak diren egituren funtzionamenduari erreparatzea. Eskualdeko Idazkaritzak eta Sektoretako Nazio Komiteak dira gure funtsezko bitartekoak zuzendaritza lana aurrera ateratzeko. Eraberritzeko urratsan hainbat erabaki hartu ditugu eta norabide horretan lan egiten jarraitu behar dugu. Nazio Komitean egitura hauen osasuna eta funtzionamendua hobetzeko gogoetak egiteari garrantzia emanez batetik, egitura hauei begirako gure esku hartzea hobetzeko ahaleginak egiten bestetik, hauek direlako gure lan eremu nagusiak.

Nazio Komitearen funtzionamenduari dagokionez.

Bi gauza lortu beharko genituzke gure funtzionamendua hobetzeko.

- Batetik zuzendaritza egitura guztien funtzionamendua modu antolatu eta koordinatu batean garatzea. Edo bederen, ahalik eta koordinatuena eta antolatuena izatea. Hau da, nazio komitea sindikatuaren agenda kudeatzeko gune hutsa izateari uztea nahi badugu, bere dinamika guk plangintzatu eta antolatu behar dugu (eztabaidak denboraz aurreikusiz...) eta hori kontutan hartu batzordeen eta zuzendaritzako gainontzeko egituren funtzionamendua zehazterakoan. Eremu guzti honen jarduera antolatzeak denbora hobe kudeatzea ekarri behar du gainera, guztiok bilera batetik bestera etengabe ibiltzen ekiditeko ahal den neurrian.
- Bestetik, nazio komitearen gaitegia eta funtzionamendua berrantolatzea. Gauzak aldatu gabe ezer konpontzea ezinezkoa da eta gutxiago gauza berriak egitea. Kontua da ez dugula asmatzen egin behar ditugun aldaketetan. Proposamenak:
 - **Nazio Komitearen gaitegia berrantolatzea.** Sindikatuaren agenda definitzeko, kudeatzeko eta dinamizatzeko erabaki berriak hartu ditugu egitura bakoitzari zer dagokion definituz. Logikoa da agendak nazio komitean leku berezi eta handia hartzea baina hobe definitu behar dugu zer den agendari dagokionez nazio komiteak eztabaidatu eta erabaki behar duena.
 - **Nazio Komiteak bilera kopurua aztertzea.** Gauza gehiago eztabaidatu behar baditugu eta gai batzuk gaur dutena lekua baino gehiago eduki behar badute gaitegiak zuzendu beharko ditugu, baina zuzendaritzari zenbat arreta eta denbora eskaini behar diogun aztertu beharko dugu ere.

Eta ezinbestez, zuzendaritza kideen trebakuntzari garrantzi eta leku gehiago eman behar diogu. Bai norberaren funtzioari dagokionez, baina baita zuzendaritza funtzioari dagokionez ere. Zuzendaritzak bere formakuntza egitasmo propioa edukitzea premiazkoa da eta askotan esan badugu ere, ez dugu sekulan lortu. Egitasmoa kolektiboa izan behar du, baina norbanakoei begirako planteamenduak jasoz ez delako berdina bozeramaila lanak bete behar izatea edota organoak dinamizatzen jakin behar izatea.